

## **GORA GARBITZAILEAK:**

**Bizkaiko hitzarmenaren alde, garbitzaileak ekintzara pasa gara!**

Bizkaiko garbitzaileak ekintzara pasatzea erabaki dugu. GORA GARBITZAILEAK izenarekin, garbiketa sektoreko hamarnaka langilek gure Hitzarmenaren alde borrokatzeko antolatzea erabaki dugu. Sektoreko langileak gara eta denborarekin baldintzak okertzen ari direlaren, gure soldatak urteetan zehar izozten ari direlaren eta enpresak gure lankideen zati handi batek sentitzen duen lana galtzeko etengabeko mehatxuaz aprobetxatzen direlaren lekuko.

Baina guk ez, guk iada ez dugu beldurrik, dagokigunaren alde borrokatzera prest gaude eta beste era batera egin nahi dugu. Ia 30 urteren ostean, Bizkaiko garbiketan greba deitu da berriro martxoaren 31rako, eta deialdia berotzen duen bultzada izatea erabaki dugu, blokeoaren ardura duten enpresak seinalatzen dituen hatzamarra.

Gora GARBITZAILEAK formula berriak bilatzeko sortu da, ezkutuan egoteaz nazkatuta dagoen sektore baten borroka ikusarazteko formulak. Lanean inor geratzen ez denean edo oraindik jendearentzat ireki ez denean garbitzen dugu. Inork ikusten ez gaituen ordutegietan garbitzen dugu. Egiten dugun lana aitortzea nahi dugu. Horregatik, ekintza zirraragarri, ikusgarri eta ez konbentzionalen aldeko apostua egiten dugu.

Gaur gure lehen ekintza egin dugu, LAB eta ESK sindikatuak babestuta, eta kolore morez tindatu ditugu Bilboko iturriak, gure eskularruak eta fregonak hiriburuak omenaldia egiten dien jaunen estatuetatik zintzilikatu ditugu, eta pankarta erraldoi bat askatu dugu Udaletxeko zubitik, eta honako hau zioen: "M31 GREBARA 1200 € x15: si LAS LIMPIADORAS PARAMOS, SE PARA TODO – GORA GARBITZAILEAK".

GORA GARBITZAILEAK hasi berria da, baina urte askotako nekearen ondorio da. GORA GARBITZAILEAK guk geuk sortzen dugu, baina arduradunak beraiek dira. Gaur jaio da, baina hitzarmen duin bat sinatuta hilko da.

Bilbon, 2022ko martxoaren 3an

